ORMAIZTEGIKO UDALA

Iragarkia

2011ko maiatzaren 19ko Alkatetzaren ebazpenez, honako hau erabaki da:

Lehenengo: Ormaiztegiko Hiria Antolatzeko Plan Orokorreko Zelaeta 12 Areako egikaritze unitate bakarreko kontzertazio hitzarmena behin betikoz onartzea, udal honetan 2001ko apirilaren 5eko sarrera dataduna eta Irizar, S.Coop.-ek aurkeztua.

Bigarren: Hirigintza-hitzarmenen erregistroan eta artxibo administratiboan hitzarmenaren behin betiko testuaren ale oso baten idazpena eta gordetzea egin dadin agintzea.

Hirugarren: Interesdunei ebazpen hau jakinarazi dadin agintzea, eta bere argitalpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN egin dadin agintzea.

Hitzarmenaren testu osoa:

Ormaiztegiko 12 esparruko, Zelaeta gauzatze unitateko adostasunezko hitzarmena.

Ormaiztegin, 2011ko apirilaren ....(e)an.

BILDURIK

Alde batetik: Jon Intxausti Ugalde jauna, adinez nagusia, XXXXXXXXXXXX NAN zenbakia duena eta hitzarmen honen eraginetarako Ormaiztegiko Muxika Egurastokia, 1ean helbidea duena, egintza honetan Ormaiztegiko Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea den Unai Rekondo Perez jaunak lagundurik, XXXXXXX NAN zenbakia duenak eta egintzaren fede publikoa emateko.

Eta bestetik: Gorka Herranz Landa jauna, adinez nagusia, XXXXXXXX NAN zenbakia duena eta hitzarmen honen eraginetarako Ormaiztegiko Zumarraga Bidea, 8n helbidea duena.

PARTE-HARTZAILEAK

Jon Intxausti Ugalde jauna, Ormaiztegiko udaleko alkatepresidente den heinean, eta haren izen eta ordezkapenean, egintza honetan Ormaiztegiko Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea den Unai Rekondo Pérez jaunak lagundurik eta egintzaren fede publikoa emateko.

Gorka Herranz Landa jauna (XXXXXXXX NAN zenbakia) Ormaiztegiko Zumarraga Bidea, 8n (Gipuzkoa) helbideratuta dagoen Irizar, S. Kooperatibaren izen eta ordezkapenean. Sozietate hori mugagabe eratu zen, Arrasateko notarioa José María Marco Garmendiak 1964ko apirilaren 20ean baimendu zuen eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatuta dagoen eskrituran adierazten den bezalaxe (I. Liburukia, 145. Orria, 86.1.173 erregistro zenbakia). Herranz Landa jauna Kontseilu Arautzailearen presidente bezala aritzen da ekitaldi honetarako Beasaingo notario Mariano-Pablo Melendo Martínezek 2007ko ekainaren 5ean baimendutako eskrituraren bidez eskuratutako ahalmenez baliatuz, bere protokoloko 1.128 zenbakiz.

Alde guztiek hitzarmen hau onartzeko beharrezkoa den lege-gaitasuna daukate eta eragin horietarako.

ADIERAZTEN DUTE

I. Ormaiztegiko Udalak Ormaiztegiko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren idazketa sustatu duela. Dokumentu horretan 12. Esparrua, Zelaeta (non Irizar, S. Kooperatibaren instalazioak kokatuta dauden), Irizar, S. Kooperatibaren jabetzakoak diren hainbat lurzoru gehituz handitzea jasotzen da. Lurzoru horiek ezin izan dira lehenago ge hitu, arrazoi ezberdinengatik. Esparrua handitzeak ez du esan nahi eraikigarritasuna handitzen denik, izan ere, orain arte indarrean zegoen hirigintzako planeamenduan jasotzen zen eraikigarritasun berbera mantenduko baita.

AYUNTAMIENTO DE ORMAIZTEGI

Anuncio

Mediante Decreto de alcaldía de fecha de 19 de mayo de 2011, se resolvió lo siguiente:

Primero: Aprobar definitivamente el convenio de concertación de la Unidad de Ejecución única del Area 12 Zelaeta del Plan General de Ordenación Urbana de Ormaiztegi, presentado por Irizar, S.Coop., con fecha de entrada en este Ayuntamiento de 5 de abril de 2011.

Segundo: Ordenar que se anote y custodie un ejemplar completo de su texto definitivo en el registro y archivo administrativo de convenios urbanísticos.

Tercero: Ordenar que se notifique la presente resolución a los interesados, así como ordenar su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Texto íntegro del convenio:

«Convenio de Concertación de la Unidad de Ejecución del Área 12 Zelaeta.

En Ormaiztegi, a .... de abril de ....2011.

REUNIDOS

De una parte: Don Jon Intxausti Ugalde, mayor de edad, con el D.N.I. n.º XXXXXXXXXXXX y con domicilio a efectos del presente convenio en Ormaiztegi, Muxika Egurastokia, 1, asistido en este acto por Don Unai Rekondo Perez, con D.N.I. n.º XXXXXXXX, Secretario-Interventor del Ayuntamiento de Ormaiztegi, para dar fé del acto.

De otra parte: Don Gorka Herranz Landa, mayor de edad, con D.N.I. n.º XXXXXXXX con domicilio a estos efectos en Ormaiztegi, Zumarraga Bidea, 8.

INTERVINEN

Don Jon Intxausti Ugalde, en calidad de Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Ormaiztegi en cuyo nombre y representación actúa, asistido en este acto por Don Unai Rekondo Pérez, Secretario-Interventor del Ayuntamiento de Ormaiztegi, para dar fé del acto.

Don Gorka Herranz Landa, en nombre y representación de Irizar, S.Coop., domiciliada en Zumarraga Bidea, 8, de Ormaiztegi (Gipuzkoa), constituida por tiempo indefinido, en virtud de escritura autorizada por el Notario de Mondragón, Don José María Marco Garmendia, el día 20 de abril de 1964, inscrita en el Registro de Cooperativas de Euskadi, al Folio 145 del Tomo I, con el número de inscripción 86.1.173; con C.I.F. XXXXXXXX. Actúa en calidad de Presidente del Consejo Rector, facultado para este acto en función del poder que le fue conferido en virtud de la escritura autorizada por el Notario de Beasain, Don Mariano-Pablo Melendo Martínez, el día 5 de junio de 2007, con número de protocolo 1.128.

Tienen, según intervienen, la capacidad legal necesaria para otorgar el presente convenio, a cuyo efecto.

EXPONEN

I. Que el Ayuntamiento de Ormaiztegi ha promovido la redacción del Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Ormaiztegi. Este documento recoge la ampliación del ámbito del Área 12 Zelaeta, en la que se ubica la planta industrial de Irizar, S.Coop., mediante la incorporación de una serie de suelos propiedad de Irizar, S.Coop., que no se habían podido incluir anteriormente por diferentes cuestiones. Esta ampliación del ámbito no supone un incremento de edificabilidad, manteniéndose la edificabilidad recogida hasta la fecha en el planeamiento urbanístico anteriormente vigente.

II. Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak (HAPO) 12. Esparrua, Zelaeta, adostasunez gauzatzea ezartzen duela eta hortaz, aurretik indarrean zegoen planeamenduak ezartzen zuen Konpentsazio sistema 2/2006 Legeak ezartzen duenaren arabera egokitu behar dela.

III. Indarrean dagoen legeriari jarraiki, HAPOk Ormaiztegiko Udalari lurzoru publiko gehiago (aurretik indarrean zegoen planeamenduan hasiera batean jasota zegoen lurzoru kopuruarekiko, urbanizatuta baina oraindik jabetzaren erregistroan inskribatu gabe daudenak) lagatzea aurreikusten duela.

IV. Irizar S.Kooperatibak 12. Esparruari, Zelaeta, buruzko Hiritartze Jarduketarako Programa sustatu duela, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak ezarritakoa betez. Aipatutako Programa horren helburuen artean daude esparrua hiritartzeko lanak gauzatzeko denbora arautzea eta hura garatzeko baldintzak ezartzea, aurretik indarrean zegoen hirigintzako planeamenduaren garapenean gauzatutako urbanizazioa bere gain hartuz eta idatziz jasoz. Hiritartze Jarduketarako Programa (HJP) hori Ormaiztegiko Udalean aurkeztu da dagozkion izapideak egiteko. Era berean, hitzarmen hori behin betiko onartzeko ezinbestekoa da behin betiko onartzea aldi berean izapidetuko den Hiritartze Jarduketarako Programa.

V. Adostasunezko sistema hori gauzatzeak hitzarmena izenpetzea dakarrela, halaxe ezartzen baitu Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 160.2 artikuluak. Hitzarmena izenpetuz gero, gutxienez lurzoruaren %50eko jabetza duenak legeak berak jasotako hainbat konpromiso hartu beharko ditu bere gain.

VI. Ormaiztegiko Udalak, administrazio jardulea den aldetik, eta Irizar, S.Kooperatibak, 12. esparruko, Zelaeta, lurzoru pribatu guztien (%100) jabea eta esparru horren hiritartze lanen sustatzailea den aldetik, hitzarmen hau sinatzen dutela hizpide dugun esparruaren hirigintza gauzatzen lagunduko duten neurriak batera eta era koordinatuan egituratze aldera. Hori horrela, behin eta berriz aipatu dugun Legeak 160.2 artikuluan eta hurrengoetan agindutakoa betez, bi aldeek erabaki dute hitzarmen hau izenpetzea, kontuan hartuz honakoa:

ESTIPULAZIOAK

Lehena. Xedea.

Hitzarmen honen xedea da Ormaiztegiko Udalaren eta Irizar S.Koop.ren arteko harremanak arautzea, 12. esparruko, Zelaeta, hiritartze lanak gauzatzeko, esparruaren mugaketa berria eta HAPOean ezarritako baldintzak betez eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak ezarritakoari jarraiki.

Bigarrena. Parte-hartzaileak.

Hitzarmen hau izenpetzen dutenen izaera eta baldintza:

1. Ormaiztegiko Udala hirigintza kudeatzeko ardura duen administrazioa den aldetik, eta hortaz, nahitaez eta doan laga beharreko lurzoruen esleipendun dena, baldintza horri dagozkion hirigintzako eskuduntza guztiekin.

2. Irizar, S.Koop., 12. esparruko, Zelaeta, eragindako lurzoru pribatu guztiaren (%100) jabea, baldintza horri dagozkion hirigintzako eskubide guztiekin.

Hirugarrena. Parte-hartzaileen betebeharrak.

12. esparruko, Zelaeta, hiritartze lanak behar bezala gauzatze aldera eta lehen estipulazioan ezarritako helburua lortzeko, Hitzarmen hau izenpetzen dutenek honako betebehar hauek betetzeko konpromisoa hartzen dute:

II. Que el PGOU establece como sistema de ejecución para el Área 12 Zelaeta, el de concertación, lo que supone una adecuación a los términos dispuestos en la Ley 2/2006 del sistema de Compensación que venía establecido en el planeamiento anteriormente vigente.

III. Que el PGOU prevé, en aplicación de la legislación vigente, un incremento de los suelos públicos de cesión al Ayuntamiento de Ormaiztegi, respecto a los inicialmente recogidos en el planeamiento urbanístico anteriormente vigente que se encuentran ya urbanizados, estando pendiente su inscripción en el registro de la propiedad.

IV. Que Irizar, S.Coop., ha promovido el Programa de de Actuación Urbanizadora del Área 12 Zelaeta, en cumplimiento con lo establecido en la Ley 2/2006 del suelo y urbanismo del País Vasco. El citado Programa tiene entre sus objetivos regular el programa temporal de ejecución de las obras de urbanización y el establecimiento de las condiciones de desarrollo del ámbito, asumiendo y dejando constancia de la urbanización ya ejecutada en desarrollo del planeamiento urbanístico anteriormente vigente. El citado PAU se ha presentado al Ayuntamiento de Ormaiztegi para su tramitación, siendo precisa la aprobación definitiva del mismo para la aprobación definitiva del presente Convenio de Concertación que se tramita en paralelo.

V. Que de conformidad con lo dispuesto en el art. 160.2 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, la actuación por el sistema de concertación requiere en todo caso la firma de un convenio en el que más del 50% de la propiedad del suelo, como mínimo, asuma los compromisos recogidos en dicha Ley.

VI. Que el Ayuntamiento de Ormaiztegi en su condición de administración actuante y la empresa Irizar, S.Coop., como propietaria del 100% de los terrenos privados incluidos en el Área 12 Zelaeta y promotora de la ejecución urbanística de la misma, al objeto de articular de forma conjunta y coordinada las medidas que coadyuven a la culminación de la ejecución del ámbito y de conformidad con lo establecido en el art. 160.2 y siguientes de la Ley de constante referencia, suscriben el presente convenio que se regirá de acuerdo con las siguientes,

ESTIPULACIONES

Primera. Objeto.

Constituye el objeto del presente Convenio regular las relaciones entre el Excmo. Ayuntamiento de Ormaiztegi y la empresa Irizar, S.Coop., para proceder a la culminación de la ejecución urbanística del Área 12 Zelaeta, en cumplimiento de la nueva delimitación del ámbito y las condiciones establecidas en el PGOU y en adecuación al contenido de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

Segunda. Intervinientes.

Las partes intervinientes en el presente Convenio lo hacen con el siguiente carácter y condición:

1.º El Excmo. Ayuntamiento de Ormaiztegi como administración competente en la gestión urbanística y, por lo tanto, como adjudicatario de los suelos de cesión obligatoria y gratuita, con cuantas competencias urbanísticas lleva inherente esta condición.

2.º Irizar, S.Coop. como propietaria del 100% del suelo privado afectado en el Área 12 Zelaeta, con cuantas facultades urbanísticas son inherentes a dicha condición.

Tercera. Obligaciones de los intervinientes.

Con el objeto de llevar a buen fin la culminación de la ejecución urbanística del Área 12 Zelaeta y de conseguir el objetivo establecido en la estipulación primera, las partes otorgantes del presente Convenio asumen el cumplimiento de las siguientes obligaciones:

1. Ormaiztegiko Udalaren betebeharrak:

1.1. Birzatiketa Proiektuaren idazketa erraztea Irizar, S. Kooperatibak jada bete dituen (bere garaian indarrean zegoen legeak ezartzen zituen terminoetan) lege-betebeharrak (hirigintza jarduketak eragindako plusbalietan parte hartzearekin lotutako eskubideen materializazioari buruzkoak) jasota uzteko beharrezkoak diren agiri guztiak emanez, eta ahalik eta azkarren izapidetzea Irizar, S. Kooperatibak Ormaiztegiko Udalean aurkezten duen 12. esparruaren, Zelaeta, Birzatiketa Proiektua.

1.2. Ahalik eta azkarren izapidetzea 12. esparrua, Zelaeta, garatzeko eta gauzatzeko etorkizunean beharrezkoak izan daitezkeen agiri guztiak.

1.3. Nahitaez eta doan laga beharreko lursailak eta ondareak jasotzea Legeak ezartzen duena betez.

2. Irizar S.Kooperatibaren betebeharrak:

2.1. 12. esparrua, Zelaeta, garatzea horren planeamendua egiteko ezarritako hirigintzako zehaztapenei jarraiki eta Hiritartze Jarduketarako Programan ezarritakoak betez.

2.2. Gauzatze Unitate honetako onurak eta kargak berdin banatzeko birzatikatze dokumentua formulatzea, Adostasunezko hitzarmen hau onartu eta sei hilabeteko epean, gehienez ere.

2.3. Nahitaez eta doan laga beharreko lursailak eta ondareak lagatzea Legeak ezartzen duena betez.

2.4. Bere gain hartzea oraindik gauzatu gabe dauden hiritartze lanen karga guztiak eta Legeak eta planeamenduak behin eta berriz aipatu dugun esparruari esleitutako hiritartze, azpiegitura eta zerbitzu obrak gauzatzea, Hiritartze Jarduketarako Programan ezarritako hiritartze lanak gauzatzeko programa betez.

2.5. Konpromiso guztiak beteko direla bermatzea Hiritartze Jarduketarako Programaren arabera oraindik gauzatzeko dauden hirigintza kargen aurreikuspen ekonomikoaren % 7ko abala eginez eta emanez, 2/2006 Legearen 160.6 artikuluak dioenari jarraiki.

Laugarrena. Hitzarmen hau izapidetzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 8. ataleko Zazpigarren Xedapen Gehigarriak ezartzen duenari jarraiki, hirigintzako hitzarmen hau informazio publiko bidez izapidetuko da eta hitzarmena onartu dela iragarriko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN.

Bosgarrena. Lursailak besterentzea.

Hitzarmen hau, bertan finkatutako aurreikuspenak eta dagozkion ondorioak eraginpeko lursailen jabe guztientzat izango dira baliagarriak eta egongo dira indarrean. Beraz, aipatutako lursailak edo lursailen hirigintza-eskubideak salduz, besterenduz edo horrelako zerbait eginez gero, titular berriari Hitzarmen honi lotutako eskubide eta betebeharrak subrogatuko zaizkio. Horrela, aurreko jabeak hitzarmen honen pean hartutako konpromisoak eta eragin horretarako Estatuko Lurzoruari buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen duen 2/2008 Errege Dekretuaren 19. artikuluak ezartzen dituen gainontzekoak besterentzeko ekintzetan jaso beharko ditu.

1. El Ayuntamiento de Ormaiztegi viene obligado a:

1.1. Facilitar la redacción del Proyecto de Reparcelación, aportando toda la documentación necesaria para dejar constancia de las obligaciones legales ya cumplidas por Irizar, S.Coop., relativas a la materialización de los derechos correspondientes a la participación de la comunidad en las plusvalías generadas por la actuación urbanística, en los términos legalmente vigentes en su momento, y tramitar con la máxima celeridad posible el Proyecto de Reparcelación del Área 12 Zelaeta que Irizar, S.Coop., presente en el Ayuntamiento de Ormaiztegi.

1.2. Tramitar con la máxima celeridad posible todos los documentos que el desarrollo urbanístico y la ejecución del Área 12 Zelaeta puedan requerir en el futuro.

1.3. Recepcionar los terrenos y bienes de cesión obligatoria y gratuita en los términos establecidos en la Ley.

2. Irizar, S.Coop., viene obligada a:

2.1. Proceder al desarrollo del Área 12 Zelaeta, de acuerdo con las determinaciones urbanísticas establecidas en los correspondientes instrumentos de planeamiento y con las determinaciones para su ejecución establecidas en el Programa de Actuación Urbanizadora.

2.2. Formular en el plazo máximo de seis meses desde la aprobación del presente convenio de concertación el documento de reparcelación para la equidistribución de los beneficios y cargas de la actuación.

2.3. Aportar los terrenos de cesión obligatoria y gratuita en los términos establecidos en la Ley.

2.4. Asumir la totalidad de las cargas de urbanización pendientes de ejecución y ejecutar las obras de urbanización, infraestructuras y servicios atribuidas al área por la Ley y el planeamiento, en cumplimiento del programa temporal de ejecución de las obras de urbanización establecido en el Programa de Actuación Urbanizadora.

2.5. Garantizar los compromisos asumidos mediante la formalización y entrega de un aval de cuantía equivalente al 7% de la estimación económica de las cargas de urbanización pendientes de ejecución recogida en el Programa de Actuación Urbanizadora, conforme a lo dispuesto por el artículo 160.6 de la Ley 2/2006.

Cuarta. Tramitación del presente convenio.

En cumplimiento de lo dispuesto por Disposición Adicional Séptima, apartado 8 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco, el presente convenio de ejecución urbanística deberá ser sometido al trámite de información pública a través del anuncio de su aprobación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Quinta. Transmisión de los terrenos.

La eficacia y vigencia del presente convenio y de las previsiones establecidas en el mismo, así como los efectos derivados de las mismas, se entenderán válidas y vigentes cualesquiera que sean los propietarios de los terrenos afectados por el mismo. Así, en caso de venta, transmisión, etc., tanto de esos terrenos como de los correspondientes derechos urbanísticos, el nuevo o nuevos titulares se entenderán subrogados en el conjunto de derechos y obligaciones que dimanan de la suscripción del presente convenio, estando el anterior propietario obligado a consignar en los actos de enajenación los compromisos asumidos y demás circunstancias previstas al efecto por el artículo 19 del Real Decreto Legislativo 2/2008, por el que se aprueba el texto refundido de la ley del suelo estatal.

Halaber, besterentzea egiten duenak eskualdaketaren berri, titular berriaren izena eta helbidea eman beharko dizkio Ormaiztegiko Udalari. Horretarako, adierazitako datu horiek jasotzen dituen jabetza eskualdaketarako eskrituraren zatiaren kopia aurkeztu beharko du, eroslea hitzarmen honetatik eratorritako eskubide eta betebeharretan subrogratzen den eskrituraren klausulen kopiarekin batera.

Seigarrena. Lege aplikagarria.

Hitzarmen honetan aurreikusi gabeko orotan, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak Hirigintzako Hitzarmenei buruz ezartzen duena beteko da.

Zazpigarrena. Hitzarmena iraungitzea.

Hitzarmen hau betetzen denean edo honako arrazoietakoren bat agertzen denean iraungiko da:

a) Dokumentu honetan jasotako funtsezko betebeharretakoren bat ez betetzea.

b) Bi alderdiek, elkar hartuta, hala erabakitzen dutenean.

c) Indarrean dagoen legeriarekin bat etorriz aplika daitekeen beste edozein agertuta.

Zortzigarrena. Jurisdikzioa.

Hitzarmen honen izaera administratiboa da, eta interpretaziotik, betetzetik, ez betetzetik, eraginetatik eta iraungitzetik eratorritako gatazka guztiak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari jakinaraziko zaizkio.

Hitzarmen honekin ados daudela eta guztiz eta zintzoki beteko dutela adierazteko, hitzarmenaren bina ale sinatzen dituzte parte-hartzaileek izenburuan adierazitako leku eta egunean.

Jon Intxausti Ugalde, Ormaiztegiko Udalaren izenean.

Gorka Herranz Landa, Irizar S.Koop.ren izenean.

Ormaiztegiko Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea, Unai Rekondo Pérez.

Bide administratiboari amaiera ematen dion azaldutako behin-betiko erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Donostiako Kontentzioso Administratiboko epaitegian bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizakri Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen urtarrilaren 13ko 4/1999 109.c) artikuluarekin bat etorriz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administraziorekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta zure eskubideeak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsoak aurkezteari kalterik egin gabe.

Ormaiztegi, 2011ko maiatzaren 23a.—Jon Intxausti Ugalde, Alkatea. (6125)

Asimismo, el transmitente deberá comunicar formalmente al Ayuntamiento de Ormaiztegi el hecho de la trasmisión mediante la presentación de la copia de la parte de la escritura pública donde figuren el nombre y domicilio del nuevo titular así como las cláusulas en las que el adquirente se subroga en los derechos y obligaciones derivados del presente Convenio.

Sexta. Legislación aplicable.

En todo lo no previsto por el presente Convenio, será de aplicación la regulación contenida en materia de Convenios Urbanísticos por la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

Séptima. Extinción del convenio.

El presente Convenio se extinguirá por el cumplimiento del mismo o por resolución por alguna de las siguientes causas:

a) Incumplimiento de alguna de las obligaciones esenciales contenidos en el presente documento.

b) Mutuo acuerdo de las partes.

c) Cualesquiera otras, que, en su caso, les fuere de aplicación de acuerdo con la legislación vigente.

Octava. Jurisdicción.

El presente Convenio tiene naturaleza administrativa, en consecuencia, cualesquiera discrepancias que surjan en orden a su interpretación, cumplimiento, incumplimiento, efectos y extinción se someterán al conocimiento de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Y en prueba de conformidad y plena aceptación, y a efectos de su total y fiel cumplimiento, las partes intervinientes suscriben el presente convenio por duplicado en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

Por el Ayuntamiento de Ormaiztegi, Jon Intxausti Ugalde.

Por Irizar, S.Coop., Gorka Herranz Landa.

El secretario-interventor del Ayuntamiento de Ormaiztegi, Unai Rekondo Pérez».

Contra el citado acto expreso, que es definitivo en vía administrativa, podrá. interponer en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente al de la publicación del presente anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo de Donostia-San Sebastian que corresponda, a tenor de lo establecido en los arts. 8 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en concordancia con el art. 109.c) de la Ley 4/1999, de 13 de enero, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento administrativo común.

No obstante, con carácter potestativo y previo al Recurso Contencioso-Administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución expresa que se notifica, se podrá interponer recurso de reposicion, ante el mismo órgano que la dictó, en el plazo de un mes que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.

Todo ello, conforme a lo establecido en los artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento administrativo común anteriormente señalada, y sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que estimare/n oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos.

Ormaiztegi, a 23 de mayo de 2011.—El Alcalde, Jon Intxausti Ugalde. (6125)